

ALEGIA

Sagardoa, sardinak eta txorizoa nagusi

14.07.13 - 00:15 - AMAIA GOIKOETXEA | ALEGIA.

Dudarik gabe, festetako hitzordu nagusienetako bat bihurtu da larunbat eguerdian plazan egiten den sagardo dastaketa. Egunari eguerditik indartsu ekin nahi dioenarentzat edo bezperako ajea gainetik kentzeko zerbait behar duenarentzat aukera paregabea eskaintzen dute bai sagardo freskoak, eta baita pintxo modura eskaintzen diren sardina errekek eta txorizoak ere. Pintxoan kasuan, ikusgarria izaten da bandejen joan etorria eta baita bandejak husten diren abiadura ere. Eta sagardo botilei dagokionez, zer esanik ez atzoko beroa kontuan hartuta.

Kirolaren inguruan ekin zitzaion egunari. Oria ibaian 6 eta 14 urte bitartekoentzat arrantza txapelketa jokatu zen eta txirrindularitzari dagokionean, kadete eta jubenil mailako taldekako Gipuzkoako txapelketa jokatu zen. Eta arratsaldean, kirol hitzordu gehiago, Alegiako III. Pilota Txapelketako finalak jokatu baitziren. Iluntzerako, berriz, Trapu Zaharrak taldearen Ametsetan bizi kale antzerkia zegoen aurreikusia.

Gauean musika izan zen nagusi. Lehenik, Rockalean taldearen emanaldia izan zen kaleetan zehar. Kantu ezagun ugariaren bertsioekin jendea dantzan jarri zuten eta giro bikaina sortu zuten. Rockaleanen ostean, oraindik ere dantzan jarraitu nahi zuenarentzat, Dj Imanolen emanaldia izan zen plazan.

Harrijasotzaileen Saria

Gaurkoari begira, herri kirolen mundutik datorkigu hitzordu nagusietako bat. Jada klasiko bihurtu den harrijasotzaileen VIII. Txintxarri Saria. Bi harrijasotzailez eta aizkolari batez osaturiko bi talde izango dira lehian. Lehen taldean, Aimar Irigoien eta Urtzi Telleria izango dira harrijasotzaileak eta Joseba Otaegi aizkolaria. Bigarrenean, Izeta II. eta Mikel Lopetegirekin Unai Otaño ariko da aizkora. Erabiliiko dituzten harriak: 100 kiloko kopa, 100 kiloko kubikoa, 100 kiloko zilindro-zaharra, 100 kiloko bola. Tartean, Idoia Etxeberria harrijasotzaileak erakustaldiak egingo ditu harri ezberdinekin.

Egunari hasiera, aurre txupinazioa botatzeko ohorea izan duten lehengo eta oraingo txistularien kalejirarekin emango zaio. Eguerdian Sutarri dantza taldearen emanaldia izango da plazan. Arratsaldean, umeentzat baserriko jokoak eta antzararen jolasa izango dira Kulki taldearen eskutik eskolako atarian, eta ondoren aipaturiko herri kirol jaialdia izango da. Iluntzean eta gauean, Iratzar taldearekin dantzaldia izango da plazan.

Bibalabirjen jaien barruan, egun handia izango da gaurkoa. Eguerdian bertso poteoa egingo dute gitarraz lagunduta. Bulebarrean herri bazkaria izango da eta arratsaldean Ttek elektrotxaranga ibiliko da kaleak alaitzen. Gauean Skasti taldearen kontzertua izango da Bulebarrean.

TAGS RELACIONADOS

sagardoa, sardinak, txorizoa, nagusi

Publicidad



¿Un iPhone nuevo por 17€?

Compradores españoles consiguen hasta un 80% de descuento usando un sorprendente truco

www.megabargains24.com


Visita Irlanda

Descubre la magia de Irlanda este verano, serán unas vacaciones inolvidables.

www.turismodeirlanda.com


¿Hotel? Trivago

Compara hoteles entre más de 100 webs, encuentra tu hotel ideal y ahorra con trivago

www.trivago.es


Centros Único Estética

Aqualyx, mesoterapia corporal/facial, esclerosis, varices, peeling químico. ¡Infórmate!

www.centrosunico.com

pn

Para poder comentar debes estar [registrado](#)

Añadir comentario

Iniciar sesión con

Regístrate



Escribe aquí tu comentario.

La actualización en tiempo real está **habilitada**. (Pausar)

Mostrando 0 comentarios

Ordenar por los más recientes primero

[Suscríbete por e-mail](#) [RSS](#)